

1170/2025 EBAZPENA, uztailaren 8koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan Larrialdietako ataleko burua (Pazienteen Kalitate eta Segurtasun Arloa) hautatzeko deialdian onartutakoaren eta bazter utzitakoaren behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzeko dena.

AURREKARIAK

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen apirilaren 29ko 472/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESiko Larrialdietako ataleko burua (Pazienteen Kalitate eta Segurtasun Arloa) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa sistemaren bidez (2025eko maiatzaren 14ko EHAA 89 zk. eta 2025eko maiatzaren 22ko BOE 123 zk).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko uztailaren 3an amaitu zen.

Donostialdeko ESiko zuzendariaren ekainaren 18ko 740/2025 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartutakoaren eta baztertutakoaren behin-behineko zerrenda onartu zen.

Aurrekoa ikusita, ebazpen honen bidez argitaratzen da onartutakoaren eta bazter utzitakoaren behin betiko zerrenda, eta Balorazio Batzordea izendatzen da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdeko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.— Donostialdeko ESlan Larrialdietako ataleko buruaren (Pazienteen Kalitate eta Segurtasun Arloa) lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea (I. eranskina).

Bigarrena. — Balorazio Batzordearen osaera onartzea (II. eranskina).

Hirugarrena.— Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Donostialdeko ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hilabeteko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostian, 2025eko uztailaren 8an.

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentea
EB (2266/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa)



Langileen zuzendaria,
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO

DONOSTIALDEA ESI
GERENTZIA
LANGILEEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAS



I. ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESiko LARRIALDIETAKO ATALEKO BURUA (PAZIENTEEN KALITATE ETA SEGURTASUN ARLOA) LANPOSTUA.

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Oihana Ormazábal Múgica.

Baztertuak:

- Inor ez

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.

II ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESIko LARRIALDIETAKO ATALEKO BURUAREN (PAZIENTEEN KALITATE ETA SEGURITASUN ARLOA) LANPOSTUA.

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua:

Titularra: Sara Arévalo Lobera andrea (Donostialdeko ESIko zuzendari medikoa)

Ordezkoa: María Eugenia Alkiza Eizagirre andrea (Bidasoako ESIko zuzendari medikoa)

Lehenengo batzordekidea:

Titularra: José Javier Zubeldia Caminos jauna (zuzendariorde medikoa – Donostialdeko ESIko Arlo medikoa)

Ordezkoa: Jon Alexander Sistiaga Suarez jauna (zuzendariorde medikoa – Donostialdeko ESIko Kirurgia Arloa)

Bigarren batzordekidea:

Titularra: Miren Arantza Aguillo García (Donostialdea ESIko Larrialdietako osasun zerbitzuko burua)

Ordezkoa: Manuel Cancio Fanlo (Donostialdea ESIko Larrialdietako osasun ataleko burua)

Hirugarren batzordekidea:

Titularra: José Luiz Blázquez Díez (Uribe ESIko Larrialdietako osasun zerbitzuko burua)

Ordezkoa: Federico Melgosa Latorre (Debagoiena ESIko Larrialdietako osasun zerbitzuko burua).

Laugarren batzordekidea (IVAPek proposatua):

Titularra: Ana Belén Maillo Arana (Goierri ESIko Larrialdietako osasun ataleko burua).

Ordezkoa: José Ignacio Pérez Ferreiro (Barrualde - Galdakao ESIko Larrialdietako osasun ataleko burua).

Idazkaria:

Titularra: María Pilar Sánchez Garduño andrea (Donostialdeko ESIko Pertsonen zuzendaria)

Ordezkoa: María Estrella Garrido Manzano andrea (Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Pertsonen zuzendaria).